BALDINTZA TEKNIKOAK, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2/2015 FORU ARAUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA DISEINATZEKO ETA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKO (2026001CO600).

1. SARRERA

2015. urtean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua onartu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan aurrera egiteko, politika horiek sendotzeko eta politika horiei iraunkortasuna emateko. Indarrean jarri zenetik, Foru Arau hau Euskal Autonomia Erkidegoko foru-eremuan berdintasunaren arloan sortutako lehen tresna arauemailea da, eta berdintasunaren arloko lehen arau espezifikoa, testu berean, emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerrarazteko erakundeen esku-hartzea jasotzen duena.

Foru Arauak, hirugarren xedapen gehigarrian, ezartzen du haren kudeaketa errazteko eta garapen-prozesuan gardentasuna bermatzeko beharrezkoa dela haren betearazpenaren eta aplikazioaren aldizkako jarraipen sistematikoa egitea. Jarraipen hori urteko jarraipen-txosten bat egitean eta, bost urtean behin, Foru Arauaren ebaluazio-txosten bat egitean islatuko da. Txosten hori Batzar Nagusiei helaraziko zaie, haren erreformarako edo aldaketarako egokientzat jotzen dituzten neurriak erabakitzeko. Gainera, xedapen horrek berak aurreikusten du Jarraipen eta Ebaluazio Batzorde bat sortzea, oraindik abian jartzeke dagoena, Foru Arauaren bost urtez behingo jarraipen- eta ebaluazio-txostenak egiteko egitura bultzatzaile gisa.

Arau-agindu horri jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren bidez, lau jarraipen-txosten egin ditu arau hori onartu zenetik (2015-2016, 2017, 2018 eta 2021-2023 urteei dagozkienak). Arauaren bost urtez behingo ebaluazio-txosten bat ere egin du. Horren denbora-esparrua 2015 eta 2020 artekoa izan zen (6 urte).

CONDICIONES TECNICAS PARA LA CONTRATACION DE LA ASISTENCIA TÉCNICA PARA EL DISEÑO Y ELABORACIÓN DEL SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DE LA NORMA FORAL 2/2015 PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES (2026001CO600).

1. INTRODUCCIÓN

En el año 2015, con el objeto de avanzar, consolidar y dar sostenibilidad a las políticas para la igualdad de mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, se aprueba la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres*. A partir de su entrada en vigor, la *Norma Foral* se convierte en la primera herramienta normativa en materia de igualdad creada en el ámbito foral de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la primera norma específica en materia de igualdad que incorpora, en su mismo texto, la intervención institucional para la eliminación de la violencia machista contra las mujeres.

La *Norma Foral*, en su *disposición adicional tercera*, establece que para facilitar su gestión y garantizar la transparencia en su proceso de desarrollo se tiene que realizar un seguimiento periódico y sistemático de su cumplimiento y aplicación, que se plasmará en la elaboración de un informe anual de seguimiento y en la confección, cada cinco años, de un informe de evaluación de la *Norma Foral*, que se trasladará a Juntas Generales, con el fin de acordar las medidas que consideren más adecuadas para su reforma o modificación. Además, esta misma disposición prevé la creación de una Comisión de Seguimiento y Evaluación, aún pendiente de su puesta en marcha, como estructura impulsora de la elaboración de los informes de seguimiento y evaluación quinquenal de la *Norma Foral.*

Siguiendo este mandato normativo, la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, ha realizado, desde la aprobación de la norma citada, cuatro informes de seguimiento –los correspondientes a los años 2015-2016; 2017; 2018; y 2021-2023. También ha realizado un informe de evaluación quinquenal de la *Norma* cuyo marco temporal se

Foru Arauaren 2021-2023 aldiko azken jarraipen-txostena da hiru urteko betearazpen-aldia betetzen duen lehena, arau-garapenaren ikuspegi diakronikoa txertatzeko eta, horrela, egindako lanaren luzetarako azterketa egin ahal izateko.

Azken hamarkadan egindako jarraipen- eta ebaluazio-txostenetatik hainbat gomendio eratorri dira, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira, duten garrantziagatik:

- Foru Arauaren jarraipen-sistema hobetzea. Agerian utzi da berdintasunaren arloko berariazko esku-hartze baten emaitzak ezin direla aztertu unean uneko esku-hartzeen baturaren bidez. Emaitzak hobeto hautematen dira araudian aurreikusitako urtebeteko iraupena gainditzen duten prozesuen eta dinamiken esparruan. Horregatik, jarraipen-txostenak egin behar dira bi edo hiru urtean behin, ikasteko eta hobetzeko tresna gisa duen erabilgarritasuna optimizatzeko, eta Foru Arauari buruz egin behar den bost urtean behingo ebaluazioaren osagarri gisa.

- Foru Arauaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko informazioa biltzeko sisteman sakontzea.

- Teknikarien eta politikarien artean Foru Arauaren ezagutza zabaltzea, berdintasunerako agindu arauemaileak hobeto koka daitezen foru politika guztietan.

- Foru-araua optimizatzea, Gipuzkoako Foru Aldundian 1/2023 Legegintzako Dekretuaren aginduak zehazteko bide gisa (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena).

sitúa en el periodo que va entre 2015 y 2020 (6 años).

El último informe de seguimiento 2021-2023 de *la Norma Foral*, en particular, es el primer informe de seguimiento que cubre tres años de ejecución y lo hace con la finalidad de incorporar una mirada diacrónica del desarrollo normativo y de esta manera poder realizar un análisis longitudinal del trabajo realizado.

De los informes de seguimiento y evaluación realizados en la última década se han derivado diversas recomendaciones entre las que destacan por su relevancia las siguientes:

- Mejorar el sistema de seguimiento de la *Norma Foral*. Se ha puesto de manifiesto que los resultados de una intervención intencionada en materia de igualdad no se pueden estudiar a través de la suma de intervenciones puntuales. Que los resultados se perciben más adecuadamente en el marco de procesos y dinámicas cuya duración suele exceder el marco temporal de un año previsto en la normativa. De ahí que se precise realizar informes de seguimiento cada dos o tres años, de forma que se optimice su utilidad como herramienta de aprendizaje y mejora, y de manera complementaria a la evaluación quinquenal que se tiene que realizar de la *Norma Foral*.

- Profundizar en el sistema de recogida de información para la realización del seguimiento y evaluación de la *Norma Foral*.

- Extender el conocimiento de *la Norma Foral* entre el personal técnico y político para que se puedan situar mejor los mandatos normativos de igualdad en el conjunto de las políticas forales.

- Optimizar la *Norma Foral* como cauce para concretar en la DFG los mandatos del *Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, que aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista*.

Orain arte adierazitakoa eta Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzen jarraitzeko beharra kontuan hartuta, Berdintasunerako Organoak laguntza tekniko bat kontratatu behar du bi ildo osagarri egiteko:

- Foru Arauaren jarraipen- eta ebaluazio-sistemaren diseinua egitea.
- Alde batetik, 2021-2025 aldirako Foru Arauaren bost urtean behingo ebaluazioa egitea, eta, bestetik, 2026-2027 aldirako Foru Arauaren jarraipen-txostena egitea.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratazioaren xedea da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema diseinatzea, eta 2021etik 2025era bitarteko bosturtekorako ebaluazioa eta 2026-2027 aldirako jarraipen-txostena egitea.

3. EGINKIZUNAK

Kontratua funtsezko **zeregin eta eginkizun** hauen inguruan antolatuko da:

1.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema diseinatzea, kontuan hartuta 2015-2020ko bost urteko ebaluazioan eta 2021-2023ko jarraipen-txostenean jasotako gomendioak. Horretarako, bereziki, honako alderdi hauetako batzuk hartu behar dira kontuan:

- Orain arte erabilitako Foru Arauaren jarraipen- eta ebaluazio-eredu globala berrikustea, arreta berezia jarriaz ebaluazioaren ikuspegiari eta metodologiari –kuantitatiboari eta, batez ere, kualitatiboari–, eta 2021-2027 aldirako ebaluazio- eta jarraipen-txostenak egiteko laguntza emango duten hobekuntzak proposatzea. Horretarako, besteak beste, lantalde bat sortu beharko da, emakumeen eta

Teniendo en cuenta lo señalado hasta ahora y la necesidad de seguir dando cumplimiento a lo establecido en la *disposición adicional tercera de la Norma Foral*, desde el Órgano para la Igualdad se requiere la contratación de una asistencia técnica que facilite la realización de dos líneas complementarias:

- Elaborar el diseño del sistema de seguimiento y evaluación de la *Norma Foral*.
- Elaborar, por una parte, la evaluación quinquenal de la *Norma Foral* para el periodo 2021-2025; y, por otra, el informe de seguimiento de la *Norma Foral* para el periodo 2026-2027.

2. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de la contratación es diseñar el sistema de seguimiento y evaluación de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres*, y elaborar la evaluación para el quinquenio comprendido entre 2021 y 2025 y el informe de seguimiento para el periodo 2026-2027.

3. FUNCIONES Y TAREAS

El contrato se articulará en torno a las siguientes **tareas y funciones** fundamentales:

1.- Diseñar el sistema de seguimiento y evaluación de la Norma Foral 2/2015 para la igualdad de mujeres y hombres teniendo en cuenta las recomendaciones recogidas tanto en la evaluación quinquenal 2015-2020 como en el informe de seguimiento 2021-2023. Para ello, se deben considerar, en particular, algunos de los siguientes aspectos:

- Revisar el modelo global de seguimiento y evaluación de la Norma Foral utilizado hasta ahora prestando especial atención al enfoque de evaluación y a la metodología –de carácter cuantitativo y, sobre todo, cualitativo-, y proponer mejoras que orienten la elaboración de los informes de evaluación y seguimiento para el periodo 2021-2027. Para ello, entre otras cosas, deberá crearse

gizonen berdintasunerako araudiaren eta politika publikoen ebaluazioan adituak diren pertsonekin.

un grupo de trabajo con personas expertas en materia de evaluación de la normativa y políticas públicas para la igualdad de mujeres y hombres.

- Jarraipen-sistema foru-arauaren bost urteko ebaluazioarekin modu koherentean lerrokatzea, GFAren ekintza orientatzeaz gain, jarraipenak bost urteko ebaluazioa ere elikatu eta osatu dezan.

- Alinear de manera coherente el sistema de seguimiento con la evaluación quinquenal de la Norma Foral, de manera que el seguimiento, además de orientar la acción de la DFG, también alimente y complemente la evaluación quinquenal.

- Informazioa biltzeko sistema bat definitzea adierazle homogeneoen multzo baten bidez. Adierazle horiek departamentu guztiek jakinarazi beharko lituzkete eta lotuak egon beharko lukete Foru Araua betetzearekin, garatzearekin eta aplikatzearekin.

- Definir un sistema de recogida de información a través de una batería de indicadores homogéneos que debieran ser informados por todos los departamentos y estar vinculados con el cumplimiento, desarrollo y aplicación de la Norma Foral.

- Kontuan hartzea, bai jarraipenean, bai bost urteko ebaluazioan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako arau-aginduak, foru-aldundiei eragiten dietenak. Foru-arauaren bidez haien jarraipena eta ebaluazioa egin ahalko da, eta, horrekin, bi arau-tresnak lerrokatuta daudela bermatu.

- Considerar, tanto en el seguimiento como en la evaluación quinquenal, los mandatos normativos recogidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, que aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista que afectan a las Diputaciones Forales para posibilitar que, a través de la Norma Foral, se vehiculice hacer seguimiento y evaluación de los mismos y, con ello, garantizar que ambos instrumentos normativos estén alineados.

- Jarraipen- eta ebaluazio-sistema Foru Arauaren komunikaziora egokitzea, bitarteko bat izan dadin hura Foru Arauaren ezagutza teknikarien artean eta, lehentasunez, politikarien artean zabaltzeko.

- Acompasar el sistema de seguimiento y evaluación con la comunicación de la Norma Foral, con el fin de que éste pueda ser un medio para extender el conocimiento de la Norma Foral entre el personal técnico y, prioritariamente, entre el personal político.

- Foru Arauaren jarraipen- eta ebaluazio-prozesua diseinatzea, kontuan hartuta hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Jarraipen eta Ebaluazio Batzordearen osaera eta erantzukizunak.

- Diseñar el proceso de seguimiento y evaluación de la Norma Foral tomando en consideración la composición y responsabilidades de la Comisión de Seguimiento y Evaluación prevista en su Disposición adicional tercera.

2.- Foru Arauaren bost urteko ebaluazioa egitea 2021-2025 aldirako, gutxienez alderdi hauek kontuan hartuta:

2.- Elaborar la evaluación quinquenal de la Norma Foral para el periodo 2021-2025, considerando, al menos, los siguientes aspectos:

- Foru-arauaren betetze-maila, garapena eta aplikazioa aztertzea, honen artikuluak berariaz, elkarri lotutako moduan eta globalki ebaluatuz, xedapen gehigarriak barne, eta, halaber, 2015-2020ko bost urteko ebaluazioan lortutako emaitzekin alderatuta hauteman daitezkeen aurrerapenen eta atzerapenen arteko konparazioa eginez.

  Emaitza horiek aztertzean, arreta berezia jarri behar da aurrerapenen eta atzerapenen nolakotasunean eta horiek errazten edo oztopatzen dituzten faktoreetan. Azken helburua Foru Araua hobetzea da, haren garapenean eta betearazpenean eragiten duten kausak eta faktoreak sakon eta testuinguruan kokatuta ulertuz eta, horrela, haren eraginkortasuna, emaitzak eta eragina behar bezala baloratzea. Horretarako, foru-arauaren garapenean inplikatuta dauden eragileen pertzepzioei eta balorazioei erreparatu beharko zaie (foru- eta toki-administrazioarenei eta erakunde feministenei, lehentasunez).

- Bost urteko ebaluazioaren diseinuan egin beharreko doikuntzak detektatzea, ebaluazioaren emaitzak hobetzen jarraitzeko.

- Foru Arauaren emaitzak hobetzeko proposamenak identifikatzea, bai maila formalari bai maila eraginkorrari dagozkienak, eta foru araua garatzeko hurrengo bost urteetan –hurrengo ebaluazio-prozesura arte– kontuan hartu beharreko erronka nagusiak identifikatzea.

- Txosten orokor bat idaztea analisiaren emaitzekin, ondorioekin eta hobekuntza-proposamenekin, bai ebaluazioari dagokionez, bai haren betearazpenean eta garapen formal eta eraginkorrean aurrera egiteari dagokionez. Txosten hori errazago hedatzeko eta, beraz, kontuak emateko, txosten exekutibo, labur eta pedagogiko bat ere erantsiko zaio.

- Analizar el cumplimiento, desarrollo y aplicación de la *Norma* Foral, evaluando específicamente y de manera interrelacionada y global el articulado de ésta, incluidas sus disposiciones adicionales; también, realizando una comparativa entre los avances y retrocesos, en su caso, que pudieran detectarse en relación con los resultados obtenidos en la evaluación quinquenal 2015-2020.

  El análisis de estos resultados debe prestar especial atención a la cualidad de los avances, retrocesos y a los factores facilitadores u obstaculizadores. El objetivo último es la mejora de la *Norma Foral* a través de la comprensión profunda y contextualizada de las causas y factores que inciden en su desarrollo y cumplimiento y, de este modo, valorar adecuadamente la eficacia, resultados e impacto de ésta. Para ello, se deberá prestar atención a las percepciones y valoraciones de los agentes implicados –administración foral y local y organizaciones feministas, de manera prioritaria- en el desarrollo de la *Norma Foral*.

- Detectar los ajustes que sean pertinentes en el diseño de la evaluación quinquenal para seguir avanzando en la mejora de los resultados de ésta.

- Identificar propuestas para mejorar los resultados de la Norma Foral, en el plano tanto formal como efectivo, e identificar los principales retos a tener en cuenta de cara al desarrollo de ésta durante los próximos cinco años, hasta el siguiente proceso de evaluación de la misma.

- Redactar un informe global con los resultados del análisis, las conclusiones y las propuestas de mejora tanto en relación con la evaluación como con el avance en su cumplimiento y desarrollo formal y efectivo. De cara a facilitar su difusión y, por tanto, rendición de cuentas, dicho informe irá acompañado también de un informe ejecutivo, breve y pedagógico.

3.- Foru Arauaren jarraipen-txostena egitea 2026-2027 aldirako:

- Foru Arauak zein eduki dituen eta nola garatzen ari den aztertzea, bost urteko ebaluazioarekiko osagarri eta elkarren mendeko gisa. Azterketa hori lagungarri izango da jarduera desberdinek Foru Arauaren garapenean eta betearazpenean laguntzen duten emaitzak nola sortzen dituzten azaltzeko.

- Atzeraelikatzen diren bi prozesu osagarriren koherentzia eta lerrokadura aztertzea: Foru Arauarena eta 2025-2027 aldirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planarena.

- Foru Arauaren garapenaren aurrerapena monitorizatzea, identifikatuz, batetik, arrakasta-faktoreak eta, bestetik, Foru Arauaren artikulu batzuk ezarritakoaren arabera ezartzen ari ez izatea eragiten dutenak, halakorik balego.

- Proposamenak eta gomendioak egitea GFAren berehalako ekintza bideratzeko, eta foru-araua betetzen eta garatzen dela bermatzeko behar diren baliabideak mobilizatzea.

- Jarraipen-txosten bat idaztea analisiaren emaitzekin, ondorioekin eta hobetzeko proposamen eta gomendioekin.

Azkenik, eta oro har prozesu osoan zehar, erakunde adjudikaziodunak honako zeregin hauek ere bete beharko ditu:

- Berdintasunerako Organoarekin koordinatzea, jarraibideak, orientabideak eta proposamenak jasotzeko; metodologia, emaitzak eta lan-prozesuari buruzko alderdiak kontrastatzeko, eta abarrerako.

- Deialdiak egitea, aktak jasotzea eta erabilgarriak izan daitezkeen bestelako dokumentuak egitea, ebaluazio-prozesuan zehar antolatzen diren bilera eta topaketen esparruan.

3.- Elaborar el informe de seguimiento de la Norma Foral para el periodo 2026-2027:

- Analizar qué contenidos y cómo se está desarrollando la Norma Foral de manera complementaria e interdependiente a la evaluación quinquenal, de manera que pueda ayudar a explicar la manera en que las diferentes actuaciones producen resultados que contribuyen al desarrollo y cumplimiento de la Norma Foral.

- Analizar la coherencia y la alineación de dos procesos complementarios que se retroalimentan: la Norma Foral y el IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2025-2027.

- Monitorear el progreso del desarrollo de la Norma Foral identificando tanto los factores de éxito, como aquellos que están incidiendo en que, en su caso, algunos artículos de la *Norma Foral* no se estén implementando conforme a lo establecido.

- Realizar propuestas y recomendaciones que faciliten orientar la acción inmediata de la DFG, así como movilizar los recursos necesarios para garantizar el cumplimiento y desarrollo de la *Norma Foral*.

- Redactar un informe de seguimiento con los resultados del análisis, las conclusiones y las propuestas y recomendaciones de mejora.

Finalmente, y con carácter general a lo largo de todo el proceso, la entidad adjudicataria tendrá que realizar también las siguientes tareas:

- Coordinarse con el Órgano para la Igualdad para recibir directrices, orientaciones, propuestas, contrastar metodología, resultados y aspectos relativos al proceso de trabajo, etc.

- Elaborar las convocatorias, recoger las actas y elaborar otro tipo de documentos que puedan ser de utilidad, en el marco de las reuniones y encuentros que se organicen

- Prozesuaren jarraipena egitea eta ebaluazioaren aldian eta ondoren prozesuaren berri ematea ahalbideratuko duten materialak eta tresnak prestatzea, Berdintasunerako Organoak eskatuta.

Era berean, eta berariaz, erakunde esleipendunak berdintasunerako araudiaren eta politika publikoen ebaluazioaren arloko adituek osatutako lantaldetik eratorritako gogoetak sortu, koordinatu, dinamizatu eta sistematizatu beharko ditu. Lantalde horren helburu nagusia Foru Arauaren ebaluazioaren eta jarraipenaren diseinu globalerako egokienak diren ikuspegiari eta metodologiari buruzko deliberazioan laguntzea izango da.

4. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

Kontratua gauzatzeko epea 2027ko abenduaren 31n amaituko da.

5. GAUZATZEKO BALDINTZAK

- Proiektuaren fase guztietan sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea: informazioa biltzea, aztertzea eta ondorioak eta proposamenak egitea.

- Lortutako emaitzak eta proiektuaren esparruan garatutako prozesua genero-ikuspegitik aztertzea.

- Enpresa edo entitate esleipendunak kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, irudi edo material orotan hizkuntzaren erabilera ez sexista erabiltzea; halaber, emakumeen irudi baztertzaileak edo genero-estereotipoak erreproduzitu daitezen ekidingo da eta berdintasunezko balioak sustatuko dira, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren bidez, batzuk zein besteek, modu berean, posizio sozial ezberdinak betez eta antzeko zereginak beren gain hartuz bai esparru publikoan bai pribatuan.

durante el proceso de evaluación.

- Preparar, a solicitud del Órgano para la Igualdad materiales y herramientas que posibiliten realizar el seguimiento del proceso y dar cuenta del mismo durante y tras la realización de la evaluación.

También, y de manera específica, la entidad adjudicataria tendrá que crear, coordinar, dinamizar y sistematizar las reflexiones que se deriven del grupo de trabajo conformado por personas expertas en materia de evaluación de la normativa y políticas públicas para la igualdad, y cuya finalidad principal estará vinculada con acompañar la deliberación sobre el enfoque y metodología más adecuados para el diseño global de la evaluación y seguimiento de la Norma Foral.

4. PLAZO DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO

El plazo de ejecución del contrato finalizará el 31 de diciembre de 2027.

5. CONDICIONES DE EJECUCIÓN

- Incorporación sistemática de la variable sexo en todas las fases del proyecto: recogida de información, análisis y elaboración de conclusiones y propuestas.

- Análisis desde la perspectiva de género tanto de los resultados obtenidos, como del proceso desarrollado en el marco del proyecto.

- Empleo en toda la documentación, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato por la empresa o entidad adjudicataria de un uso no sexista del lenguaje, evitando además cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o la reproducción de estereotipos de género y fomentando valores igualitarios, a través de la presencia equilibrada de mujeres y hombres, ocupando unas y otras, del mismo modo, diferentes posiciones sociales y asumiendo funciones similares tanto en el ámbito público

como en el privado.

- Konfidentzialtasuna kontratua gauzatzean: kontratu hau dela-eta egiten diren lan guztiak konfidentzialak izango dira, eta, beraz, enpresa esleipendunak ezingo du beretzat erabili, ez eta hirugarrenei eman ere, kontratatutako lanei buruzko daturik edo informaziorik, ezta administrazioak emandako dokumentaziorik ere. Enpresa esleipendunak eskura dituen baliabide guztiak jarri beharko ditu, kontratua gauzatzen den bitartean eskura duen informazioaren konfidentzialtasuna gordetzeko.

- Confidencialidad en la ejecución del contrato: todos los trabajos que se realicen con ocasión del presente contrato tendrán carácter confidencial, por lo que la empresa adjudicataria no podrá utilizar para sí, ni proporcionar a terceros, datos o información alguna de los trabajos contratados, ni de la documentación facilitada por la administración. La empresa adjudicataria vendrá obligada a poner todos los medios a su alcance para preservar la confidencialidad de la información a la que tenga acceso durante la ejecución del contrato.

- 2021-2025 aldirako Foru Arauaren bost urteko ebaluazioaren txosten orokor eta exekutiboa eta 2026-2027 aldirako jarraipen-txostena bi hizkuntza ofizialetan idaztea.

- Redacción del informe global y ejecutivo de evaluación quinquenal de la Norma Foral para el periodo 2021-2025 y del informe de seguimiento para el periodo 2026-2027 en las dos lenguas oficiales.

Donostia, 2026ko urtarrilaren 12a / San Sebastián, a 12 de enero de 2026

Berdintasuneko zerbitzuburua /
Jefa del Servicio de Igualdad

Sin./Fdo.- Ana Agirre Saez de Eguilaz

Berdintasunerako teknikaria /
Técnica para la Igualdad

Sin./Fdo.- Laura Gómez Hernández